

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketari, Abetxukuko Kristo kaleko 71.ean dagoen lursail baten zati baten kalifikazio xehatua aldatzeko, hain zuzen ere erabilera publikoko espazio libretik egoitzetara aldatzeko (43-73 katastro-erreferentzia duen lursaila)**

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2017ko abenduaren 22an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketari, Abetxukuko Kristo kaleko 71.ean dagoen lursail baten zati baten kalifikazio xehatua aldatzeko, hain zuzen ere erabilera publikoko espazio libretik egoitzetara aldatzeko (43-73 katastro-erreferentzia duen lursaila).

#### Erabaki-proposamena

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko idatzitako proiektua ikusi da, zeina Abetxuku menpeko toki erakundeko Kristo kaleko 71.ean dagoen lursail baten — 43-73 katastro erreferentzia duena — zati bati kalifikazio xehatua aldatzeko; hain zuzen ere erabilera publikoko espazio libre izatetik egoitzetara aldatzeko, S. B. M.andreak. jaunak hala eskatuta.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bategina Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 25eko 143/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen behin betiko, eta 2003ko martxoaren 31ko ALHAOn argitaratu. Bertan, formaz eta neurritz aldaketa honek xede duen lursailaren antzeko beste bati egoitzetarako sailkapen xehatua ematen zitzaion. "OR-6 MOA. Abetxuku. Familia bakarreko etxebizitzak" ordenantzak arautzen zuen lursaila.

Gerora,HAPOk aldaketa bat izan zuen – 2010eko urriaren 29an onetsi zen behin betiko eta 2010eko azaroaren 22ko ALHAOn argitaratu–, eta MOA 1/23 eta MOA 2/4 batu egin ziren MOA 2/4an. Aldaketa honen bidez orduko katastro-lursailari egokitu zitzaion egoitzetarako kalifikazio xehatua, eta lursailaren gainerako zatia erabilera publikoko espazio libre izatera pasa zen.

Berriki, Arabako katastroa digitalizatzean, berrikusi egin da lursailen katastroa, eta egungo lursaila ia bat dator 2010eko aldaketa horren aurretik indarrean zegoen HAPOaren egoitzetarako kalifikazio xehatuarekin.

Beraz, hori guztia kontuan hartuta, aldakuntza honek hauxe du xede: Abetxuku menpeko toki erakundeko Kristo kaleko 71.ean dagoen lursailari (43-73 katastro-erreferentzia) zati batean kalifikazio xehatua aldatzea, erabilera publikoko espazio libre izatetik egoitzetarako izatea, OR-6 ordenantzak – "Eremuko antolakuntza mantentzea; MOA 2/4 D Abetxuko. Familia bakarreko etxebizitzak eta bloke irekiak" – araututa, eta hartara egungo lursailaren mugetara eta bertan dagoen urbanizaziora doitu.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuaren oroitidazkian honako hauek aipatzen dira: haren xedea, ekimena, aurrekariak eta aldakuntzaren proposamena, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 29an egindako bilkuran hasierako onespena eman zion Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen aldaketa horri, zein Gasteizko Abetxuku menpeko toki erakundeko Kristo kaleko 71.ean dagoen lursailaren zati bati (katastro-erreferentzia: 43-73) kalifikazio xehatua aldatzeko baita, hain zuzen ere erabilera publikoko espazio libretik egoitzetarako kalifikazioa izatera pasatzeko; guztia dosierrean jaso den proiektuarekin bat.

Udalbatzaren erabaki hori 2017ko urriaren 11o ALHAOn (117. zk) eta 2017ko urriaren 6ko El Correo egunkarian argitaratu zen, eta aldaketari buruzko dokumentazioa hilabete batez jendaurrean jarri. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Abetxukuko Administrazio Batzarrari 2017ko urriaren 10ean eman zitzaion erabakiaren berri, hoguei eguneko epean txostena eman zezan; Epe hori igaro delarik ez da ebazpen edo erantzunik jaso eta, horrenbestez, izapidearekin aurrera jarrai daiteke.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek 2.01.06 artikuluan xedatzen duenez, eremuen mugei dagozkien garapen tresnetan egokitzapenak egin ahalko dira, honako alderdiei dagozkienetan: lerrokadurak edo indarrean dauden eraikuntzetarako lerroak, edo hiri edo landa jabetzen mugak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta plan orokorraren aldakuntzak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldakuntzaren xedera egokituta.

2/2006 Legea garatzen duten premiako neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespena ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak—Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosierraren parte diren hirigintza-agi-rietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abendua 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Batzordeak Udalbatzari,

#### Erabakia

1. Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa, Abetxuku menpeko toki-erakundeko 71.ean dagoen lursail baten (43-73 katastro-erreferentzia) zati bati kalifikazio xehatua aldatzeko; hain zuzen ere erabilera publikoko espazio libre izatetik egoitzetara aldatzeko. Proiektua Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak idatzi zuen, 2017ko irailean, S. B. M-k hala eskatuta.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko urtarrilaren 2an

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**

Aldatutako arauak


Vitoria-Gasteizko Udala  
Plangintzarako eta Hirigintza Antolakuntza  
gauzatzeko Zerbitzua



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Servicio de Planeamiento y Ejecución  
de la Ordenación Urbanística

MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA  
CAMBIO DE CALIFICACIÓN PORMENORIZADA DE PARTE DE LA PARCELA SITA EN LA CALLE DEL CRISTO Nº 71 DE ABETXUKO

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKUNTZA-XEHEA  
ABETXUKOKO EL CRISTO KALEKO 71. ZENBAKIAN DAGOEN LURSAILAREN ZATI BATI KALIFIKAZIO XEHEA ALDATZEKO



RE-MOA2_4D	Residencial. Mantenimiento de Ordenanza de Ámbito (grado 2, número 4D) Etxebizitzetarakoa. Esparruaren ordenantzaren mantenimendua (2. maila, 4D zenbakia)
	Espacios libres de uso público Erabilera publikoko toki irekiak

<b>4</b>	PLAN GENERAL PROPUESTO. ALINEACIONES Y CALIFICACIÓN PORMENORIZADA PROPOSATUTAKO PLAN OROKORRA. LERROKADURAK ETA KALIFIKAZIO XEHEA	
Escala/Eskala 1:1.000	Fecha/Data SEPTIEMBRE 2017 IRAILA	Arquitecto/Arkitektoa JUAN BARRERA PORTILLO